

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egun, jende asko herrietatik edo eskualdeetatik mugitzen ari da, eta gehienetan ez dute ezagutzen helmugako tokian hitz egiten den hizkuntza. Horregatik, offline bat-bateko itzulpena duten entzungailuak sortzea oso baliagarria izan daiteke.

Berehalako itzulpenerako entzungailuek —Timekettle WT2 Edge edo Google Pixel Buds Pro bezalakoek— denbora errealeko itzulpen-teknologia erabiltzen dute elkarriketa arinak eta naturalak ahalbidetzeko. Gailuek soinuak mikrofonoen bidez jasotzen dituzte eta unean bertan itzultzen dituzte; batzuetan, itzulpena egiteko telefono mugikor baten laguntza behar dute.

Modelo batzuek, gainera, konexiorik gabeko (offline) itzulpena eskaintzen dute, eta beste batzuk eguneroko erabilerarako egokiak dira. Guztiek dute helburu bera: hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten pertsonen arteko komunikazioa errazagoa, fluidoagoa eta naturalagoa bihurtzea.